ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA, NEKAZARITZA-SEKTOREAREN ARLOKO EKINTZAILEEI LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUAREN ESPARRU-AKORDIOA ZUZENDUKO DUENA.

1. SARRERA

HAZI FUNDAZIOA (aurrerantzean HAZI) Euskal Sektore Publikoko Fundazioa da, bere jardun-esparruan lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea eta sustatzea xede eta helburu duena. Jardun-esparru horrek lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa-ingurunea, itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria hartzen ditu. Horien balioa areagotu nahi da xede eta helburu horiek betez, eta natura- eta kultura-ondarea zaindu.
erantsita itzultzen dizugun dokumentazioaren nortasuna erregistratu aurretik
Helburu horretarako, HAZIk, beste jarduera zehatz batzuez gain, ekintzailetza bultzatzeko eta hedatzeko lanak egiten ditu, eta nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreko zein landa-eremuko enpresa-proiektuak babesten ditu.

Esparru horretan, HAZIk EAEko nekazaritzasektoreari lotutako jarduera ekonomikoen ekintzaileei laguntza emateko zerbitzuak kontratatu nahi ditu.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Prozesu honen helburua da nekazaritzasektorearen **esparruan** ekintzaileei laguntzeko zerbitzua emateko gai diren enpresekin esparru-akordioa sinatzea, bai eta zerbitzu horiek emateko baldintzak zehaztea ere.

Zerbitzua emateko beharrezkoak diren ezaugarriak eta funtsezko baldintzak agiri honen **V. ERANSKINEAN** adieraziko dira.

Kontratua lote hauetan banatzen da:

- **1. LOTEA:** Arabako-nekazaritza sektorearen esparruko ekintzaileei laguntza emateko zerbitzua.

- **2. LOTEA:** Bizkaiko nekazaritza-sektorearen esparruko ekintzaileei laguntza emateko zerbitzua.

- **3. LOTEA:** Gipuzkoako nekazaritza-sektorearen esparruko ekintzaileei laguntza emateko zerbitzua.

Agiri honek kontratu-izaera du; ondorioz, adostasuna adierazteko esparru--akordioaren enpresa harpidedunak sinatu beharko du, hura formalizatzen den ekintzan.

Hauek dira kontratuaren CPV kodeak:

72224000-1 Proiektuen kudeaketarako aholkularitza-zerbitzuak
72221000-0 Enpresa-analisirako aholkularitza-zerbitzuak

3. ESPARRU-AKORDIOAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

Kontratuaren prestaketari eta adjudikazioari dagokionez, administrazio-klausula partikularren eta preskripzio teknikoen agiriak arautuko ditu esparru-akordioak, eta bertan aurreikusten ez diren gaietarako aintzat hartuko da azaroaren 8ko 9/2017 Legean adierazitakoa (Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean SPKL).

Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, honako hauek arautuko dute esparru-akordioa: Administrazio Klausula Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, esparru-akordioari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLren 319. artikuluan ezarritako arauak "eraginei eta azkentzeari" dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKL eta 1098/2001 Errege Dekretua (urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena, aurrerantzean, 1098/2001 ED) agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, adjudikatzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko; azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste adjudikazio baten xede izan behar zuela.

Hala badagokio, errekurtsoa jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Jurisdikzio zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratua azkentzeari dagokionez, klausula honen laugarren paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.

4. ERAKUNDE KONTRATUGILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde HAZI da.

Esparru-akordioa egiteko Kontrataziorgano eskuduna HAZIko Zuzendaritza Nagusia da.

Esparru-akordioan oinarrituta egiten diren kontratu espezifikoak egiteko eskumena duen Kontrataziorganoa, halaber, HAZIren Zuzendaritza Nagusia da.

Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira HAZIn ahalordetzeen eta organoen arloan gerta daitezkeen aldaketak zuzenbide pribatuko arauen arabera egingo direla, betiere kontratatzeko eskumena kontuan hartuta.

5. ESPARRU-AKORDIOAREN ETA ADJUDIKATU BEHARREKO KONTRATU ESPEZIFIKOEN BALIO ZENBATETSIA

Lote guztien esparru-akordio balio zenbatetsia, hau da, HIRU loteen batura, SPKLren 101. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, 1.386.000 eurokoa izango da, BEZik gabe (hau da, 1.260.000 euro gehi hurrengo paragrafoan aurreikusten den egoerari dagokion % 10).

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101.13. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da, hau da, esparru-akordioaren iraupen osoan zehar (hau da, bi urte gehi urtebeteko luzapen posiblea) lote guztietarako aurreikusitako kontratu guztien gehieneko balio zenbatetsiaren arabera (**BEZik gabe**).$<\}0\{><0\}$ Horrez gain, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko orduan, kontratuaren % 10ari dagokion zenbatekoa hartu da kontuan, baldin eta kontratua gauzatzen ari den bitartean aldaketa gertatzen bada benetan egindako ordu kopuruan, jarraian aurreikusitakoen aldean, SPKLren 309.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Hau da Lote bakoitzaren urteko balio zenbatetsia:

- 1. lotea: 115.500 euro **urteko** (BEZik gabe), hau da, 105.000 euro gehi % 10.
- 2. lotea: 154.000 euro **urteko** (BEZik gabe), hau da, 140.000 euro gehi % 10.
- 3. lotea: 192.500 euro **urteko** (BEZik gabe), hau da, 175.000 euro gehi % 10.

Gutxi gorabeherako eta lotesleak ez diren ondorioetarako, kontuan hartu behar da HAZIk ez dakiela zenbat laguntza-proiektu beharko diren, ezta proiektu bakoitzerako zenbatetsitako arduraldia edo ordu-kopurua zein izango den ere. Aurreko esperientziak erreferentziatzat hartuta, hau da akordioaren balio zenbatetsia kalkulatzeko kontuan hartu den ordu-kopurua:

- **1. LOTEA:**
  Urteko aurreikusten denordukopurua: 2.100 ordu urteko.

- **2. LOTEA:**
  Urteko aurreikusten den laguntza-orduen kopurua: 2.800 ordu urteko.

- **3. LOTEA:**
  Urteko aurreikusten den laguntza-orduen kopurua: 3.500 ordu urteko.

Aldez aurretik adierazi bezala, agiri hau diseinatzerakoan, HAZIk ezin du jakin orduen kopuru zehatza, ezta lote bakoitzak eskatuko duena ere. Beraz, estimazio hau aurreikuspen irekia da; hortaz, lote batean agiri honetan aurreikusitako orduak baino gutxiago eskaintzen badira, hala behar izanez gero, beste lote batean erabili ahal izango dira.

Planteatutako ordu-kopuru hori ez da inolaz ere HAZIrentzat loteslea izango; orientagarria da. Beraz, esparru-akordioa gauzatzean kalkulu hori bete ezean, harpidedunek ez dute erreklamazioak egiteko eskubidea izango, ezta HAZIk gastu-betebeharra ere.

Kontratuaren prezioa ondorioztatzeko, erakunde kontratistak eskainitako unitate bakoitzaren prezioei kontratua betearaztean benetan egindako zerbitzu-kopurua ezarriko zaie. Unitateko prezio horiek BEZa dute barne.

Ondorioz, erakunde lizitatzaileek dagokion lotearen kontratua gauzatzeagatiko prezioa sartuko dute proposamen ekonomikoan (BEZarekin eta BEZik gabe). Prezio horrek ezin izango du, inolaz ere, adierazitako gehieneko lizitazio-aurrekontua gainditu.

- Laguntza-zerbitzuaren prezioa orduko: **50 euro/ordu** (BEZik gabe).

Adierazitako unitateko prezioaren gehienekoak hauek hartuko ditu barne: kontratua betearazteko berezko kontzeptu guztiak eta betearazpen horretan aritutako langileen gastuak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako lanaldiak, baja edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripu-aseguruak, etab.), zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio-gastuak eta joan-etorrietakoak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak.

Halaber, prezioaren barne sartuko dira kontratua egikaritzeko erakunde kontratistak erabili beharko dituen edozein bitarteko, ibilgailu, ekipo, tresna eta gailu.

6. ESPARRU-AKORDIOAREN ETA ADJUDIKATU BEHARREKO KONTRATU ESPEZIFIKOEN INDARRALDIA

Esparru-akordioak **2 urteko iraupena** izango du, eta hura sinatzen den egunetik aurrera hasiko da. Kontratazio organoak beste urte batez luzatzeko aukera izango du,

gehienez ere 3 urteko aldi batera arte (hasierako epea eta luzapenak barne). Horretarako, HAZIk horren berri eman beharko die sinatzen duten enpresei, indarrean dagoen esparru-akordioaren indarraldia amaitu baino bi hilabete lehenago. Enpresa harpidedunak akordioa eta hura arautzen duen agiria bete beharko dituzte indarraldian, luzapenak barne.

HAZIk laguntza emateko eskatzen duen zerbitzu bakoitzeko, jasotako eskaeren arabera, kontratu espezifiko bat adjudikatuko da.

Kontratu espezifikoren baten indarraldia esparru-akordioa amaitu ondoren luzatzen bada, horren arauak eta araubide juridikoa agiri honetan eta formalizatutako esparru-akordioan bertan jasotako esparru-akordioarenak izaten jarraituko dute.

7. ESPARRU-AKORDIOAREN ETA HORREN ARABERA ADJUDIKATU BEHARREKO KONTRATU ESPEZIFIKOEN PROZEDURA

Prozedura hau bete dadin, kontratazio-organoak puntuazioaren arabera sailkatuko ditu aurkeztutako proposamenak (puntu gehien dituenetik gutxien dituenera), agiri honetan ezarritako adjudikazio-irizpideen arabera. Esparru-akordioa egingo du agiri honetan lehiatzen diren loteetarako eskatzen diren gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen dituzten eta klausula-orri hauen 12. klausulan eskatzen den gutxieneko puntuazioa lortzen duten erakunde lizitatzaile guztiekin.

Adjudikaziodun bat baino gehiago izan ditzakeen esparru-akordio honetan kontratuaren baldintza guztiak finkatzen dira SPKLren 221.4 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, beraz, parteei ez zaie beste lizitazio baterako deia egin behar.

Esparru-akordioa egin ondoren, laguntza-eskaera bakoitzeko kontratu espezifiko bat adjudikatuko da, agiri honetako 18. klausulan araututako baldintza objektiboen arabera.

Halaber, eta HAZIk esparru-akordioaren luzapena egitea erabakitzen badu, agiri honen 19. klausulan adierazitako baldintza objektibo arautzaileak aplikatuko dira luzapenaren baitan egiten diren kontratu espezifikoak adjudikatzeko.

8. PUBLIZITATEA

Esparru-akordioaren lizitazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta HAZIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esparru-akordioaren adjudikazioa HAZIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Esparru-akordioaren formalizazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta HAZIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratazio-organoak esparru-akordioan aldaketa egitea erabakitzen badu, agiri honen 17. klausularen arabera, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, SPKLren 207.3. artikuluan adierazitako moduan.

Horrez gain, HAZIren kontratatzailearen profilean SPKLren 63. artikuluan adierazten den gainerako informazioa argitaratuko da.

Kontratatzailearen profilean webgune honetatik sartuko da: www.contratacion.euskadi.eus

9. BERMEA.

Ez da eskatuko bermea eratzea.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Esparru-akordioa egin ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona naturalek edo juridikoek, izan espainiarrak izan atzerritarrak, baldin eta lan egiteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko debekurik ez badute eta kaudimena egiaztatzen badute.

Era berean, lizitatzaileek enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan behar dute, zeina, hala badagokio, esparru-akordioaren xede den zerbitzua emateko beharrezkoa den.

Pertsona juridikoei esparru-akordioa adjudikatzeko, zerbitzuak esparru-kontratuaren berezko helburuen, xedeen edo jarduera-arloaren parte izan beharko dira, bere sortze-arau edo -estatutuen arabera.

Nolanahi ere, HAZIrekin kontratatu ahal izango dute Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko hitzarmena sinatu duten Estatuetako Espainiatik kanpoko enpresek, betiere, kokatuta dauden Estatuaren arautegiaren arabera, kasuan kasuko zerbitzua emateko gaituta badaude, SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatzekoa baita.

Enpresa horiek kokatzen diren Estatuaren legeriak kasuan kasuko zerbitzua emateko exijitzen badu baimen berezi bat izatea edo erakunde zehatz bateko kidea izatea, aipatutako baldintza betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko erabakiek Espainiarentzat dakartzaten betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasunekoak edo Europako Esparru Ekonomikoaren Akordioaren sinatzaileak ez diren estatuetako pertsona fisikoek edo juridikoek justifikatu egin beharko dute, txosten baten bidez, atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak onartu egiten duela, baita ere, Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen antzeko sektore publikoko erakundeekiko kontratazioan, modu bertsuan. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulegoak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioari gehituko zaio.

HAZIrekin kontratatu ahal izango dute xede horretarako aldi baterako eratutako enpresari-elkarteek, kontratua haien alde adjudikatu arte eskritura publikoan formalizatu beharrik gabe, eta SKPLren 69. artikuluan aurreikusitakoa ezarriko da.

Lizitatzaileek egiaztatu egin beharko dute honako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala dituztela:

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.**

  Kontratuak erreferentzia egiten dion esparruan negozioen urteko bolumena, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako onenari dagokionez (kasu horietan urteko kontuak onartzeko obligazioa amaituta dago), lizitatzailearen jarduerak hasteko edo eratzeko eta eskaintzak aurkezteko daten arabera, gutxienez lote bakoitzari dagokion urteko balio zenbatetsiaren totala gehi erdia izan beharko du.

- **Kaudimen tekniko edo profesionala.**

  - Azken HIRU urteetan nekarazitako ustiategiei aholkularitza teknikoko zerbitzua eman izatea honako arlo hauetan: ekonomia, finantzak, lana, fiskala eta juridikoa.

  - Azken HIRU urteetan Nekazaritzako Kontabilitate Informazioko Euskal Sarearen esparruan kontabilitateko bulego gisa aholkularitza- eta kudeaketa-zerbitzuak eman izana.

- **Giza baliabideak eta baliabide materialak.**

Horrez gain, lizitatzaileek kontratua gauzatzean atxiki beharko dituzte, gutxienez, honako giza baliabide eta baliabide material hauek:

- **Giza baliabideak:** Laguntza emateko talde tekniko bat izatea. Talde hori unibertsitateko kide batek osatuko du gutxienez, eta titulu ofiziala izango du honako arlo hauetan: agronomia, albaitaritza eta biologia- edo ingurumen-

zientziak edo mendiak. Horrez gain, zuzenbideko eta/edo ekonomia-arloko lizentziatu baten laguntza izango du.

- **Baliabide materialak:** Dagokion lotearen lurralde historikoko nekazaritza-jarduerarekin bateragarria den ordutegian jendeari zabalik dagoen bulego bat izatea, gutxienez, eta berariazko tresna informatikoak izatea, hala nola kontabilitate-programak eta nekazaritza-sektoreko berariazko programa teknikoak.

Konpromiso horiek funtsezko kontratu-betebehar izaera izango dute SPKLren 211.1. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratugilearen borondatez.

Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak egiaztatzeko, enpresa lizitatzaileek beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo bitartekoetan oinarritu daitezke, haiekin dituzten loturen izaera juridikoa dena delakoa izan arren, baldin eta frogatzen badute esparru-akordioaren indarraldi osoan kaudimen eta/edo baliabide horiek benetan dituztela, eta horretarako baliatuko duen erakundeak ez daukala kontratatzeko inolako debekurik.

Horretarako, notarioaren aurrean egindako idazki bat aurkeztu beharko dute (**I. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera). Idazki horretan, enpresa lizitatzaileak eskatzen duen kaudimena egiaztatzeko errekurtsoa aurkezten duen enpresak/ek honako hau adierazi beharko du/dute: enpresa lizitatzaileak lehiatzen den lizitazioaren baldintzak ezagutzen dituela/dituztela, aipatutako kaudimena eta/edo atxiki beharreko bitartekoak dituztela, eta hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute (11. klausulan aurreikusitako moduan). Halaber, enpresa lizitatzaile horren esku jartzeko borondate atzeraezina adierazi beharko dute, baldin eta adjudikazioduna bada, esparru-akordioa gauzatzeko beharrezko bitartekoak (Kode Zibilaren 1257.2. artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta, eta Administrazioak berariaz baimendu beharko du ordezkapena edo aldaketa). Idatzi hori aurkeztearen ondorioa izango da HAZIk konpromiso hori onartzea, baldin eta dena delako erakunde lizitatzailea adjudikaziodun izaten bada.

Klausula honek aipatzen dituen esparru-akordioak egiteko gaitasuna, kaudimena eta debekurik ezari buruzko baldintzak eskaintzak aurkezteko epemugan bete beharko dira, eta esparru-akordioa burutzen den unean iraun beharko dute.

11. ESPARRU-AKORDIOA SINATZEKO PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTUAK AURKEZTEA

Proposamenak aurkezten badira, horrek esan nahi du enpresa lizitatzaileak agiri guztiak baldintzarik gabe onartzen dituela, inolako salbuespenik gabe.

Agiria eta gainerako dokumentazio osagarria HAZIren kontratatzailearen profilean egongo dira eskuragarri.

Proposamenak aurkeztea:

- **Aurkezteko modua:** Eskaintzak bitarteko elektronikoak erabilita aurkeztuko dira Eusko Jaurlaritzaren lizitazio-elektronikoaren aplikazioaren bitartez, honako helbide elektroniko honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa.

- **Aurkezteko epea:** Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegoari lizitazioaren iragarkia bidaltzen zaion egunetik aurrera, HOGEITA HAMARGARREN EGUTEGI-EGUNETAN (*), 10:00ak baino lehen.

  (*) Eskaintzak aurkezteko epea laburtu da, SPKLren 156.3.c) artikuluan xedatutakoa betez: Eskaintzak modu elektronikoa aurkeztu daitezke (5 egun gutxiago)

  Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunean amaituko da.

- **Komunikazio eta jakinarazpenetarako baliabideak:** SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz, kontratazio-prozedura honetan egingo diren komunikazioak eta jakinarazpenak agerraldi elektronikoaren bidez egingo dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den aldiro, enpresa lizitatzaileak igorri izanaren oharra jasoko du ondorio horietarako jakinarazi duen helbide elektronikoan.

Fitxategi elektronikoak izan arren, gutun-azalek “1. gutun-azala”, “2. gutun-azala” eta “3. gutun-azala” izena izango dute.

Gutun-azal bakoitzean ondoren adierazten den dokumentazioa jaso beharko da:

“AURRETIKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”.

Gutun-azal honetan ondoren adierazten diren dokumentuak jaso beharko dira. Lote batera baino gehiagora eskaintzak aurkezten dituzten erakunde lizitatzaileek, "1. Gutun-azala” bakarra aurkeztu beharko dute, dokumentu hauekin:

a) Esparru-akordioa sinatzeko eskaera egiteko dokumentua, agiri honen II. ERANSKINEAN eransten den ereduaren gisa.

Eskaera horretan esparru-akordioan parte hartzea eskatuko den/diren lotea/k adieraziko d(ir)a.

b) Erakunde lizitatzaileari, edo, hala badagokio, horren ordezkaritzari, lana egiteko gaitasuna ematen dioten egiaztagiriak (*Proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batean lehiatu nahi duten enpresaburuek egin badute, aipatu dokumentazioak elkartea osatzen duten enpresa guztiei buruzkoa behar du izan):*

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eskrituraren edo eratze-dokumentuaren, Estatutuen edo bere jarduera arautzen duten arauak biltzen dituen sorrera-ekintzaren bidez egiaztatuko da, eta hala behar duenean, dagokion Erregistro Publikoan izena emanda egongo dira dokumentu horiek, den pertsona juridiko motaren arabera betiere.

- Europar Batasuneko estatu kideetako enpresaburu ez espainiarrek, beren jarduteko gaitasuna frogatzeko, dagokien estatuaren legeriaren arabera dagokien erregistroko izen-ematea aurkeztu beharko dute, edo zinpeko aitorpen bat edo ziurtagiri bat, Europar Batasunaren aplikatu ahal diren xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostenaren edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko bulego kontsularraren txostenaren bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez, honako hau justifikatu beharko dute: atzerriko enpresaren estatuak onartu egiten duela Espainiako enpresek kontratuak egin ahal izatea administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatzen diren sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekin; funtsean, antzekoa den moduan.

- Enpresaburuen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, pertsona fisikoak badira, Nortasun Agiri Nazionala, edo dagokion estatuko baliokidea, aurkeztu beharko da.

- Beste baten izenean proposamenak aurkezten edo sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, eta horretarako beharrezkoa den ahalorde askietsia. Enpresa pertsona juridikoa izanez gero, ahalordeak Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon beharko du, hori beharrezkoa bada Merkataritzako Erregistroko Erregelamenduko 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo, hala badagokio, pertsona juridikoaren izaeraren arabera dagokion erregistro publikoan egon beharko du inskribatuta.

- Aldi baterako enpresa-elkartea eratuta aurkezten diren enpresaburuek kideen izenak, inguruabarrak eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dituzte, eta, gainera, adjudikaziodun izendatzen badituzte, aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartu beharko dute. Aldi baterako enpresa-elkartea eratuta aurkezten diren enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute enpresaburuen elkartearen izenean, esparru-akordioa azkendu artean bertatik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiarekin; nolanahi ere, zenbateko handi samarrak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eman ahalko dituzte enpresek.

Dokumentazio horren guztiaren originalak aurkeztuko dira, edo behar bezala konpultsatutako edo legeztatutako kopiak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzaileek aukera izango dute erregistroko letratu arduradunak emandako indarreko izen-emate ziurtagiriaren kopia aurkezteko, (b) atalean aipatutako dokumentazioaren ordez. Izen-emate ziurtagiriarekin batera lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da; haren bitartez adierazi beharko du dokumentuan islatutako inguruabarrak ez direla aldatu.

c) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinaren bitartez egiaztatzen den lizitatzaileak ez duela SPKLren 71. artikuluan jasotzen diren kontratatzeko debekurik.

Zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzaren betetzean egunean egotea egiaztatzeko ziurtagiria.

d) Kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa, agiri honetako 10. klausulan eskatutako sailkapenean adierazten dena.

- **Ekonomia- eta finantza-kaudimena.** Dagokion lotearen esparruan urteko negozio-bolumenari buruzko aitorpen baten bidez egiaztatuko da, azken hiru ekitaldietatik handienean.

- **Eskatutako kaudimen tekniko edo profesionala** azken hiru urteetan emandako zerbitzuen edo egindako lanen zerrenda baten bitartez egiaztatuko da. Zerrenda horretan aipatu beharko dira aipatutako lan edota zerbitzuen zenbatekoa, data eta hartzailea, publikoa zein pribatua. Aipatutako zerbitzuak edo lanak organo eskudunak igorritako edo homologatutako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatua denean, aldiz, berak igorritako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiri hori egin ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, lizitatzaileak

bere esku dituen zerbitzuaren prestazioa egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

Lote batean baino gehiagotan eskaintzak aurkezten dituzten enpresa lizitatzaileek, "**1. Gutun-azal" bakarra aurkezten badute, d) hizkian adierazitako dokumentuak aurkeztu beharko dituzten lote bakoitzerako.**

e) Kontratua sinatzerakoan, 10. klausulan eskatutako gutxieneko giza-baliabideak eta baliabide materialak izateko konpromisoa, agiri honetako III. ERANSKINEAN jasotako ereduarekin bat.

f) Hala badagokio, adierazpenen notario-akta; enpresa lizitatzaileak, eskatzen den kaudimena duela egiaztatzeko, beste erakunde batzuen kaudimenean edo bitartekoetan oinarritu nahi badu, **I. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera.

g) Atzerriko enpresek, berariazko adierazpen batean, Espainiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende gelditzen direla adieraziko dute, esparru-akordioari lotuta zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, enpresa lizitatzaileari zegokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten zaiola adieraziko dute, hala badagokio. Horren eredua agiri honen **III. ERANSKINEAN** jaso da.

Atzerriko enpresek dokumentazioa modu ofizialean euskaraz itzulita aurkeztu beharko dute, edo, bestela, gaztelaniaz.

HAZIk eskubidea du enpresa lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo dokumentazio osagarria eskatzeko.

"BALIO-IRITZI BATEN BIDEZ KUANTIFIKATU BEHARREKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Irizpideren bat balio-iritzien bidez zenbatzen bada, enpresa lizitatzaileek horren dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Lizitatzen duten lote bakoitzeko gutun-azal bat aurkeztu beharko dute.

1. Eskatutako ZERBITZUA EMATEKO MODUARI buruzko PROPOSAMEN EDO MEMORIA zehaztua, lan-dinamika eta lanen deskribapenarekin. Halaber, memorian proiektu baten fase bakoitzean erabiliko den metodologiari buruzko deskribapena egingo da, **V. ERANSKINEAN** deskribatutako jarduketekin bat. Horrez gain, emango den aholkularitzaren espezializazioari aipamena egingo zaio.

2. TALDE TEKNIKOA: Agiri honen 10. klausulan eskatutako minimoez gain, kontratuari atxikitako giza-baliabide osagarrien zerrenda, horien esperientzia eta kualifikazioa adieraziz.

Zenbait klausula sozial kontratazio publikoan sartzeko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetzeko, ohartarazten da kontratuak bete egin behar dituela indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

Testuinguru horretan, lizitatzaileek 2. gutun-azal honetan aurreikusitako dokumentazioan adierazi beharko dute kontratuaren xede den lana egingo duten langileei zein hitzarmen kolektibo ezarriko zaien, adjudikaziodunak izanez gero.

Enpresa lizitatzaileek 2. gutun-azalean adierazi beharko dute erakunde kontratatzailearen edo horri lotutako zerbitzuen kontura datu pertsonalen tratamenduari euskarria emateko zerbitzariak azpikontratatzeko asmorik duten, eta, hala bada, zein den lan hori egingo duen azpikontratistaren izena edo enpresa-profila (kaudimen profesionalaren edo teknikoaren arabera definituko da).

“FORMULEN BIDEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”

Enpresa lizitatzaileek ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko proposamena egiteko, agiri honen **IV. ERANSKINEAN** jasotzen den ereduaren arabera egin beharko dute, eta lizitatzen duten loteari dagokion gutun-azal independente batean sartuko dute.

12. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Hauek izango dira **lote guztietarako** adjudikazio-irizpideak, dagokien haztapenarekin adierazita:

1. **Balio-iritzi baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideak (2. gutunazala): gehienez ere 70 puntu.**
   - Memoria Gehienez 30 puntu

     Aurkeztutako lan-dinamika eta lanen deskribapena aproposa eta koherentea den baloratuko da, bai eta proposatutako lan-metodologia aproposa den ere.

   - Talde teknikoa: Gehienez 35 puntu

Agiri honen 10. klausulan eskatutako minimoez gain, esparru-akordioari atxikitako talde teknikoaren esperientzia eta kualifikazioa baloratuko da (gehienez 30 puntu).

Nekazaritzako sektorearen enpresak sortzeko ekintzaileei laguntza emateko atxikitako talde teknikoaren esperientzia baloratuko da (gehienez 10 puntu).

– Genero-berdintasunaren irizpidea: zerbitzuari atxikitako lan-taldearen gehiengoa emakumeak direnean 5 puntu.

Eskaintzek gutxienez 40 puntu lortu beharko dituzte prozeduran jarraitzeko.

2. Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideak (3. gutun-azala): gehienez ere 30 puntu.

Puntuak emateko, formula hau erabiliko da:

$$P = 30 \times \frac{\text{Gutxieneko eskaintza}}{\text{Enpresa lizitatzailearen eskaintza}}$$

Non:

P = baloratzen den enpresa lizitatzaileak lortutako puntuazioa
Gutxieneko eskaintza = eskainitako unitateko prezio baxuenaren zenbatekoa.
Enpresa lizitatzailearen eskaintza = baloratzen den eskaintzaren unitateko prezioaren zenbatekoa.

Agiri honetako 6. klausulan **adierazitako lizitazioaren gehieneko unitateko prezioak hobetzen ez dituen eskaintzak zero (0) puntu jasoko ditu** eskainitako unitateko prezioaren balorazioan.

EBALUAZIO-BATZORDEA

Hauek osatuko dute eskaintzak baloratuko dituen Ebaluazio Batzordea:

- Ekintzailetza eta Berrikuntza Zuzendaritzako ordezkaritza.
- HAZIko kudeatzailetzaren ordezkaritza.
- Ekintzailetzaren esparruari dagokion HAZIko arloko arduraduna.
- Aholkularitza juridikoko arduraduna idazkaria izango da.

13. ADITUEN BATZORDEA

Hauek osatuko dute adituen batzordea:

– Gaztenek programako Arabako koordinatzailea.

- Gaztenek programako Bizkaiko koordinatzailea.
- Gaztenek programako Gipuzkoako koordinatzailea.

14. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak 1. gutun-azalean (“Aurretiko baldintzak betetzen direla frogatzeko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa kalifikatuko du lehenik, baldin eta epearen barruan eta behar bezala aurkeztu bada. Lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioan zuzendu beharreko akatsak antzematen baditu, erakunde kontratugileak 3 egutegi-eguneko epea emango dio lizitatzaileari horiek zuzen ditzan.

Ondoren, 2. gutun-azala irekiko da (Balio-iritzi baten bidez kuantifikatu beharreko irizpideei buruzko dokumentazioa) agiriaren 12. klausulan adierazitako adjudikazio-irizpideen balorazioa egiteko. Aurreko klausulan adierazitako adituen batzordea arduratuko da horretaz.

Ondoren, 3. gutun-azala irekiko da (Formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa). Zuzenean lizitazio elektronikoaren plataformara bidaliko dira, agiriaren 12. klausulan ezarritako adjudikazio-irizpideak aztertzeko eta baloratzeko.

Proposamenen bat ez-proportzionaltzat edo anormaltzat jotzen bada, proposamena aurkeztu du(t)en enpresa lizitatzaileari/lizitatzaileei entzuteko aukera eman beharko zaio/zaie, eskaintzaren balorazioa justifika deza(te)n eta eskaintzaren baldintzak zehatz ditza(te)n.

Ondorio horietarako, neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo ahal izango da proposamen guztien batez besteko aritmetikoa baino ehuneko 20 unitate txikiagoa den unitateko eskaintza, edo agiri honen 6. klausulan adierazitako lizitazioaren gehieneko unitateko gorako prezioa.

Ondoren, Ebaluazio Batzordeak aurkeztutako proposamenen kalifikazioari buruzko txostena bidaliko dio Kontratazio-organoari, eta onartu behar diren enpresen zerrenda egingo du, **puntuazio gehienetik gutxieneko ordenan.**

Egindako lanari buruzko akta egingo da, eta bertan ebaluazioaren emaitzak eta intzidentziak adieraziko dira.

Ebaluazio Batzordearen adjudikazio-proposamenak ez die inolako eskubiderik ematen hautatutako enpresei HAZIren erabakiaren aurrean.

Kontratazio Organoak, Batzorde Ebaluatzailearen proposamena ikusi ostean, esparru-akordioaren adjudikazioa adostuko du agiri honetan eskatutako baldintzak

betetzen dituzten eta klausula honetan adierazitakoarekin bat kanporatu ez diren enpresa lizitatzaileen alde.

Kontratazio Organoak adjudikazioa erabakiko du arrazoitutako ebazpenean, enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie (Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez) eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

15. ESPARRU-AKORDIOA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Esparru-akordioa formalizatzen den unean burutuko da.

HAZIk hala eskatzen badu, aldi baterako enpresa-elkarte batean parte hartzen duten enpresa adjudikaziodunek aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute esparru-akordioa formalizatu aurretik, eta aldi baterako enpresa-elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute, esparru-akordioa iraungi arte sortzen diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar beste ahalorde izango dituena.

Esparru-akordioa dokumentu pribatuan formalizatuko da. Dokumentu hori zehatz-mehatza egokituko da lizitazioaren baldintzetara. Esparru-akordioa formalizatzen duen dokumentuan ezin izango dira inola ere sartu kontratazioaren baldintzak aldatzea ekarriko duten klausulak.

Esparru-akordioa gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Adjudikaziodunak, hala ere, kontratugileak esparru-akordioa eskritura publikoan egitea eskatu ahal izango du, eta horri dagozkion gastuak bere gain hartuko ditu.

Esparru-akordioa formalizatzen denetik 30 egutegi-eguneko epean gehienez, formalizazioari buruzko dagokion iragarkia bidali beharko zaio Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora. Horrez gain, HAZIren kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

16. ESPARRU-AKORDIOAREN ALDAKETA

Kontratazio-organoak esparru-akordioa aldatu ahal izango du SPKLren 205. eta 222.1. artikuluetan aurreikusitako kasuetan.

Esparru-akordioaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

Esparru-akordioa 205. artikuluko 2. ataleko a) edo b) letretan aurreikusitako kasuren baten ondorioz aldatzen denean, kontratatzailearen profilean aldaketaren iragarkia argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere aldaketaren berri eman beharko da.

Aurreko paragrafoan adierazitakoari kalterik egin gabe, eta SPKLren 309.1. artikuluan adierazitakoarekin bat, ez da aldaketatzat hartuko zerbitzua behar bezala ematen den bitartean benetan egindako orduen kopuruan dauden aldaketak, agiri honetan aurreikusitakoekin alderatuta. Ordu horiek likidazioan jaso ahal izango dira, baldin eta gastuaren gehikuntza kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa ez bada.

17. ESPARRU-AKORDIOA IRAUNGITZEA

Esparru-akordioa iraungi egingo da SPKLren 211.1. artikuluaren b), f), g) eta i) letretan aurreikusitako egoeretan (berariaz aplikatu behar direla adierazten da), eta, oro har, kontratuaren betebeharrak betetzen ez badira, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

Halaber, esparru-akordioa iraungi egingo da horren arabera esleitutako kontratu espezifikoen balio zenbatetsia lote bakoitzerako ezarritako gehieneko balioaren gorakoa bada.

Esparru-akordioa enpresa bati egotz dakiokeen arrazoiren batengatik iraungitzen bada, enpresa horri baino ez dio eragingo, eta indarrean jarraituko du, oso-osorik, HAZIk esparru-akordioa sinatu duten gainerako enpresei dagokienez.

18. ESPARRU-AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATU ESPEZIFIKOAK ADJUDIKATZEA ETA FORMALIZATZEA

Esparru-akordioaren indarraldian zehar, eta lizitazioaren deialdia egin behar gabe, SPKLren 221.4 a) artikuluarekin bat, Kontratazio Organoak lote bakoitzaren kontratu espezifikoak adjudikatuko ditu klausula honetan aurreikusitakoaren arabera.

Sortzen diren laguntza-eskarien arabera, HAZIk erabakiko du dagokion lotearen esparru-akordioari atxikitako enpresetatik (laguntza eskatzen den lurralde historikoaren arabera) zeinek emango duen zerbitzua, lote bakoitzerako ondoren adierazitakoarekin bat.

Kontratu espezifikoak adjudikatzeko irizpideak:

- Zerbitzua emango zaion proiektuaren ekoizpen-orientabidearen arabera.
- Eskatutako zerbitzua emateko eskuragarritasuna.
- Esperientzia antzeko proiektuetan.

- Lehenik eta behin, eskatutako laguntza-eskariaren espezialitatearen eta baldintzen arabera, erakunde kontratatzaileak, esparru-markoaren enpresa harpidedun bakoitzak lizitazioan aurkeztutako eskaintzaren arabera, aztertuko du teknikoki zein den aproposena eskatutako lanen ezaugarrien arabera.

- Esparru-akordioaren enpresa harpidedun bat baino gehiago laguntza emateko aproposak badira, erakunde kontratatzaileak laguntza-eskaria adjudikatuko du esparru-akordioaren enpresa harpidedunen lehentasun-ordenaren arabera, hau da, lortutako puntuazioaren arabera, handienetik txikienera, 12. klausularen irizpidearen arabera.

  Hortaz, lehenengo laguntza-eskarirako kontratua lehentasun-ordenan lehena dagoen enpresa harpidedunari esleituko zaio, bigarren laguntza-eskarirako kontratu lehentasun-ordenan bigarrena dagoen enpresa harpidedunari, eta horrela, hurrenez hurren, lehentasun-ordenan lehenengo postuan dagoen enpresarekin berriro hasi arte.

Kontratu espezifikoa adjudikatzeko ebazpena egin aurretik, proposatutako enpresak agiri honen 10. klausulan eskatutako giza-baliabideak eta baliabide materialak dituela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Dokumentazio hori enpresa harpidedun guztiek aurkeztu beharko dute soilik dagokion lehenengo kontratu espezifikoa adjudikatu aurretik. Dena den, aldez aurretik egiaztatutako baldintzak aldatzen badira, hurrengo kontratu espezifikoaren adjudikazio izatea egiaztatu beharko da berriro ere.

SPKLren 36.3. eta 153.1. artikuluetan adierazitakoa kontuan hartuta, kontratu espezifikoak adjudikazioan burutuko dira, eta ez da kontratuaren dokumentuak egiaztatzea eskatuko.

19. PREZIOA ORDAINTZEA

Enpresa kontratistak behar bezala egindako aholkularitza-zerbitzuen prezioaren ordainketa jasotzeko eskubidea izango du.

Enpresa kontratistari berak eskainitako unitateko prezioa aplikatu ondorengo prezioa ordainduko zaio hiru hilez behin, hiruhileko horretan behar bezala egindako orduen arabera.

Enpresa kontratatzaileak dagokion hiruhilekoaren ondorengo hamabost egutegi-egunetan faktura xehatua bidali beharko du, emandako eskaintza eta zerbitzuen justifikazio xehearekin batera, HAZIk ezarritako estandarrei jarraikiz.

Erakunde kontratugileak dagokion prezioa ordainduko du dagokion hiruhilekoa amaitu eta 30 eguneko epean, betiere, faktura aurreko paragrafoan adierazitako epearen barruan egin bada eta erakunde kontratugilearen oniritzia badu.

20. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da berrikusi behar.

21. KONTRATU ESPEZIFIKOEN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak esparru-akordioan adjudikatutako kontratu espezifikoen arduradun bana izendatuko du lurralde historiko bakoitzeko (esparru-akordioaren arduradun ere izango da), eta horri egokituko zaio kontratuen egikaritzea gainbegiratzea eta adostutako prestazioa ondo egiten dela bermatzeko behar litezkeen instrukzioak ematea eta neurriak hartzea, HAZIk esleitzen dion ahalmen-esparruaren barruan.

Arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, HAZIren barrukoa zein kanpokoa.

Kontratistak eta esparru-akordioko sinatzaileek nahitaez beteko dituzte kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

22. OINARRITUTAKO KONTRATUAK EGIKARITZEA

Oinarritutako kontratuak honako baldintza hauen arabera betearaziko dira:

a) Enpresa kontratistak oinarritutako kontratua bere modu eta baldintzen arabera egikarituko du kontratua, agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzetan xedatutakoaren arabera; horretaz gain, agiria aintzat hartuz kontratistak erakunde kontratugileari eman liezazkioken instrukzioak ere jarraitu beharko dira.

b) Oinarritutako kontratuak bete egin behar ditu indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira.

   Testuinguru horretan, enpresa lizitatzaileek 2. gutun-azal honetan aurreikusitako dokumentazioan adierazi beharko dute kontratuaren xede den lana egingo duten langileei, bertakoei edo azpikontratatutako enpresetakoei,

zein hitzarmen kolektibo ezarriko zaien, adjudikaziodunak izanez gero. Enpresa kontratistak oinarritutako kontratuaren xede den jarduera egingo duten langileei aplikagarritzat jotzen duen hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa adjudikazio-ebazpenean jasoko da, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Halaber, enpresa kontratista behartuta egongo da oinarritutako kontratua adjudikatu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaion informazioa guztia ematera.

Kontratistak, oinarritutako kontratuaren betearazpen osoan zehar, aplikatzekoa den sektoreko hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Ordainsaria ezin da inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

Atal honetan xedatutakoak betearazteko baldintza bereziaren eta funtsezko betebeharraren izaera izango du SPKLren 211.1.f) artikuluan jasotako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea oinarritutako kontratua suntsiarazteko arrazoi izango da, erakunde kontratugileak hala nahi badu.

c) Oinarritutako kontratua enpresa kontratistaren arrisku eta menturan betearaziko da.

d) Erakunde kontratugileak kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta oinarritutako kontratua behar bezala betearazten direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegira dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen kanpo laguntzak jasoko ditu, kontratu-betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, baita lanak kalitate maila egokiarekin gauzatzen direla egiaztatzeko ere.

Enpresa kontratistak zerbitzuekin lotuta erakunde kontratugileak eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu; beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe; eta, kontratatutako zerbitzuarekin lotutako lan- eta administrazio-arloko edo beste alor batzuetako dokumentazioa eskuratzea ahalbidetuko du

Enpresa kontratistak ez ditu oztopatuko erakunde kontratugileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanak.

Dena dela, erakunde kontratugileak edozein motatako ez-betetze edo eragozpen hautematen badu, horren berri zuzenean emango zaio oinarritutako kontratuaren arduradunari, hari baitagozkio, azken batean, zerbitzua ematen

duten langileak antolatu eta gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zigortzeko eskumenak.

e) Langile guztiak erakunde kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak bakarrik dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio erakunde kontratugileari erreklamaziorik egin dagozkion lan-harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratista izango da arduradun bakarra oinarritutako kontratua betearazteko ardura duten langileekin —langile propioekin edo noizean behin azpikontratatzen direnekin— lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratugileak ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakoa barne), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu oinarritutako kontratua betearaztearen ondorioz gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak bakarrik.

f) Datu pertsonalen babesaren arloan, enpresa kontratistak Espainiaren eta Europar Batasunaren araudia jarraitu beharko du.

g) SPKLren 202. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, kontratua egikaritzeko izaera sozialeko honako baldintza berezi hau ezartzen da: emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 2.3. artikuluari jarraikiz, bereziki zainduko da langileekin tratu eta aukera berdinen printzipioak errespetatu, hizkera eta irudi inklusiboak erabili, sexuaren araberako estereotipoak saihestu, datuak sexuaren arabera banatu, eta kontratatutako produktuaren arloan genero-ikuspegia mantentzen dela.

23. KONTRATUAREN BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratu-betebeharrak:

a) Oinarritutako kontratuaren betebehar nagusia betetzea, agiri honetan eta kontratuaren adjudikaziodunak aurkezten duen eskaintzan ezarritakoari modu hertsian lotuta.

b) Indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak betetzea, betiere lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatzekoak badira, agiri honen 21. klausularen b) letran jasotako baldintzetan. Testuinguru horretan, dagokion

oinarritutako kontratuaren adjudikaziodunak, kontratua betearazten den bitartean, langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

c) Dagokion oinarritutako kontratua betearazteari giza-baliabideak esleituko zaizkio, langile propioak zein enpresa azpikontratatutakoak, eta/edo kontratuaren adjudikaziodunaren eskaintzan agindutako materialak ere.

d) Jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak bere kontura lortzea.

e) Zerbitzu-prestazioa unean-unean aplikatzekoa den indarreko sektoreko araudian xedatutakoari jarraituz gauzatzea. Ondorio horietarako, bai dagokion oinarritutako kontratuko adjudikaziodunak, bai adjudikaziodunaren langileek ziurtagiri guztiak izango dituzte une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, hala badagokio.

f) Gutxienez kontratua betearazten den bitartean, berezko estaldurak eta aseguruak kontratatuta edukitzea.

h) Enpresa kontratistak kontratua betearazteko egin behar diren jardueren ondorioz erakunde kontratugileari zein hirugarrenei eragin liezazkiekeen zuzeneko eta zeharkako kalte eta galera guztien ardura izango du.

g) Ordainketa osagarria jasotzeko eskubiderik gabe, erakunde kontratugileak dagokion oinarritutako kontratua behar bezala garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak ematea, hala nola lan- edo informazio-bileretara bertaratzea. Dagokion oinarritutako kontratuaren amaierara arte eutsiko zaio betebehar horri.

h) Greba kasuan zerbitzuak betetzea. Zerbitzuak bermatzen ez badira, erakunde kontratugileak ahalmena izango du zerbitzu horiek betetzeko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; kasu horretan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa.

Grebak irauten duen bitartean, benetan emandako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.

i) Langileak ordezkatzea, beren funtzioa behar besteko arduraz eta eraginkortasunez betetzen ez badute eta horretarako gaitasunik ez badute, zerbitzuak behar bezala egiten ez badituzte edo dagokion oinarritutako kontratua behar bezala betearazteko kaltegarriak diren ekintzak egiten badituzte. Erakunde kontratugileak horretarako errekerimendua egiten duenetik gehienez ere hogeita lau orduko epean. Langileak ordezkatzeak ez du

inolako erantzukizunik ekarriko erakunde kontratugilearentzat, enpresa kontratistak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

Langile horiek dagokien baimena dutela egiaztatu beharko dute, beren jarduera hasi aurretik.

j) Gaixotasunak, oporrek, baimenek, lizentziek, istripuek eta abarrek eragindako lan-absentziak betetzeko langileak ordezkatzea, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean eta jarraituan emango direla bermatzeko. Gehienez ere hogeita lau orduko epean.

k) Datu pertsonalen babesaren arloan dagozkion betebehar guztiak betetzea eta behar bezala egiaztatzea, agiri honetan, karatulan eta/edo gai horren arloan Espainiako eta Europar Batasuneko araudian aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan a), b), c), d), f) eta k) letretan aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea erakunde kontratugileak kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

24. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO EGINBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen inguruan indarrean dagoen legerian eta SPKLren xedapenetan jasotakoa alde batera utzi gabe –adjudikazioaren publizitateari eta enpresa hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokienez–, HAZIk ezin izango du hedatu lizitatzaileek emandako informazioa, baldin eta horiek hura konfidentzialtzat adierazi badute euren eskaintza aurkezteko garaian. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen diren alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan –lizita prozedura honetan nahiz ondorengo batzuetan–.

Enpresa kontratistek, beren aldetik, kontratu espezifikoak betearaztean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirian edo dagokion kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar hori 5 urtez mantenduko da.

25. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Lizitazio honen xede den kontratua betearazteko, kontratuaren edukia kontuan hartuta, enpresa kontratistak datu pertsonalen tratamenduak egin beharko ditu erakunde

kontratugilearen eta/edo hirugarren erakundeen (kasu horretan, tratamendu-eragileak izango dira) kontura.

Testuinguru horretan, kontratistak nahitaez bete beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (aurrerantzean, DBEO), bai eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa ere, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (aurrerantzean, DBLO-EDB).

Ondorioz, kontratistak, tratamenduaren-eragilea/-azpieragilea denez, erakunde kontratugilearekin dagokion kontratua sinatuko du DBEOren 28. artikuluak zehazten duen edukiarekin eta irismenarekin.

Kontratu hori erakunde kontratugilearen eta enpresa kontratistaren arteko zerbitzu-kontratua sinatzearekin batera sinatu beharko da.

Nolanahi ere, eta kontratu horretan lizitazio honen xede den kontratazioa dela-eta xedatzen dena gorabehera, enpresa kontratistak honako aurreikuspen hauek bete beharko ditu:

a) DBEOn, DPBEDBn eta erakunde kontratugilearen eta enpresa kontratistaren artean zerbitzuak eskaintzeko kontratuaren indarraldian datuen babesaren alorrean ezarri ahal izango diren gainerako Espainiako eta Europar Batasuneko arauetan xedatutakoa bete beharko du.

b) Datu pertsonalak bezeroen eta hornitzaileen kudeaketarako bakarrik tratatuko ditu.

c) Kontratua formalizatu aurretik, zinpeko adierazpena aurkeztuko du. Bertan, hala badagokio, datu pertsonalen tratamenduari euskarria ematen dioten zerbitzarien kokapen fisikoa zehaztuko du, bai eta horiei lotutako zerbitzuak non emango diren ere.

d) Kontratua indarrean dagoen bitartean, c) letran aurreikusitako zinpeko aitorpenaren arabera emandako informazioari lotuta gertatzen den edozein aldaketa jakinaraziko du.

e) Erakunde kontratugilearen agiri bidezko jarraibideen arabera soilik tratutako ditu datu pertsonalak.

f) Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek konfidentzialtasun-betebehar egokia dutela bermatuko du.

g) Arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolaketa-neurri egokiak aplikatuko ditu. Horretarako, aintzat hartuko ditu teknikaren egoera; aplikazio-kostuak; tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak; eta, pertsona fisikoen eskubide eta askatasunetarako probabilitate- eta larritasun-arrisku aldakorrak. Besteak beste, eta adieraztea beste xederik gabe, honako neurri hauek baloratuko dira:

- Datu pertsonalak zifratzea eta izenordeak erabiltzea;

- Tratamenduko zerbitzuen eta sistemen konfidentzialtasun, osotasun, eskuragarritasun eta erresilientzia iraunkorrak bermatzeko neurriak;

- Gorabehera fisiko edo teknikoren bat egonez gero, datu pertsonalak azkar lehengoratzeko eta sartzeko neurriak;

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolakuntzazkoen eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesu erregularrak.

h) Erakunde kontratugileak hala eskatzen dionean eta datuak babesteari lotutako betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko, honako hauek aurkeztuko ditu: (i) erakunde kontratugilearen edo hirugarren erakunde batzuen kontura egindako jardueren kategoria guztien erregistroaren kopia bat, SPRI erakunde horien tratamenduaren arduraduna bada; eta (ii) erakunde kontratatzaileak komenigarritzat jotzen duen beste edozein agiri, betiere zerikusia badute kontratistak erakunde kontratugilearen eta/edo hirugarren erakunde batzuen kontura egiten duen datu pertsonalen tratamenduarekin, enpresa kontratista horien tratamenduaren arduradun bada.

i) Erakunde kontratugileak edo honen baimendutako beste auditore batek auditoretzak egiteko baimena eta laguntza emango du, baita ikuskapenak egitekoa ere.

j) Erakunde kontratugileari jakinaraziko dio zein diren segurtasun-neurriak abian jarri eta ikuskatzeaz zuzenean arduratuko diren pertsonak.

k) Datuen babesaren arloan ezarri daitezkeen araudietatik ondorioztatutako betebeharretan trebatuko eta informatuko ditu bere langileak.

a) letratik d) letrara ezarritako betekizunak funtsezko kontratu-betekizunak izango dira, SPKLren 211.1) artikuluan xedatutako ondoreetarako; hortaz, horiek betetzen ez badira, erakunde kontratugileak kontratua suntsitu ahal izango du.

26. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Enpresa kontratista behartuta dago iturri baimenduetatik eta bere kontura eskuratzera lizentziak eta eskubideak, ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo beste ekipamendu eta bitarteko osagarri batzuk erabili eta/edo ustiatu ahal izateko, agiri honetan ezarritakoaren arabera, horiek atxiki, jarri eta/edo mantendu behar baditu agiriaren xede diren zerbitzuak emateko.

Halaber, SPKLren 308.1. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio kontratazio honi. Gauzak horrela, jabetza intelektual eta/edo industrialaren eskubideen bidez babestu behar diren eta erakunde kontratugilearentzat sortutako, diseinatutako edo garatutako kontratuaren xede diren zerbitzuak betetzearen edozein ondorioren gaineko jabetza, osorik edo edozein fasetan, erakunde kontratugileak bakarrik izango du. Hori guztia, Jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta Patenteei buruzko uztailaren 24/2015 Legean xedatutakoaren arabera, kontratistari egokitu dakizkiokeen egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubidea alde batera utzi gabe, eta horiek behar bezala aintzat hartu beharko ditu erakunde kontratugileak.

Ondorioz, enpresa kontratistak erakunde kontratugileari bermatu beharko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen ondorioa modu baketsuan erabiltzen dela, eta, kasua denean, emaitza horren zati den edozein elementu gainean legitimoki eta baimendutako iturrietatik beharrezko lizentzia eta eskubideak lortu beharko ditu. Entregatzeko orduan adieraziko da emaitza horren gainean erakunde kontratatzaileari kontratazio honen arabera dagozkion eskubideen aurkako inolako konpromiso edo kargarik ez dagoela.

Edonola ere, enpresa kontratista erantzulea izango da kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek, jabetza intelektualari eta/edo industrialari dagokienez, hauekin lotuta egiten dituzten erreklamazioez:

- Jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubideen bidez babestutako materialak, erremintak eta tresnak erabiltzea zerbitzuak emateko.

- Kontratazioaren xede diren zerbitzuen emaitza edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurrez aipatutakoa kontuan hartuta, enpresa kontratistak kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio erakunde kontratugileari, aipatutako arrazoiengatik egindako erreklamazioen ondorioz sortu badira.

Kasua denean, aurretik adierazitako guztiaren ondorioz eratorritako ordainketa kontratuaren prezioaren barne egongo da.

27. KONTRATU ESPEZIFIKOEN ZIGORRAK

Kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzeagatiko edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatiko zigorra

Enpresa kontratistak berari leporatu dakizkiokeen arrazoiengatik kontratatutako zerbitzuak ondo ematen ez baditu, edo indarreko GAZTENEK prozeduran ezarritakoa edo beste edozein kontratu-baldintza betetzen ez badu, HAZIk kontratu espezifikoa suntsiaraztea erabaki ahalko du, agiri honen 34. klausulako baldintzei jarraikiz, edo kontratuarekin jarraitu ahal izango du, bata zein bestea. Azken kasu horretan, egokiak diren edozein kalte-galeren ordainketaz gain, kontratu espezifikoaren prezioaren % 10aren zigor baliokidea emango zaio HAZIri.

Zigorrak ordaintzeko, kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, eta dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratua suntsiarazi zein jarraitu erabakitzen badu ere, HAZIk egokitzat jotzen duen denboran bere baliabide propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez kontratuarekin jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galeren ordainaren eta klausula honetan jasotako ondorioak alde batera utzi gabe.

28. KONTRATU ESPEZIFIKOAK LAGATZEA

Ez dagokio, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan direlako kontratua adjudikatzeko.

29. KONTRATU ESPEZIFIKOAK AZPIKONTRATATZEA

Enpresa kontratistek hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Ezingo da ezein kasutan kontratuaren xede diren eta funtsezkotzat hartu diren eginkizunak, hala nola pertsona ekintzaileak monitorizatu eta bideratzea.

Enpresa kontratistek kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko diote, kontratu espezifikoa adjudikatu ondoren eta beranduen jota hura gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa; eta adierazi beharko dute prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duten, azpikontratistaren edo horren legezko ordezkarien nortasunaz eta harremanetarako datuez gainera. Halaber, behar adina justifikatu beharko dute azpikontratistaren gaitasuna hura gauzatzeko, erreferentzia eginez

dituzten elementu teknikoei giza baliabideei eta horien esperientziari. Gainera, egiaztatu beharko dute azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLren 71. artikuluaren arabera.

Enpresa kontratista nagusiek kontratazio-organoari idatziz jakinarazi beharko diote informazio horrek duen edozein aldaketa kontratu nagusia betearaztean, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere.

Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu espezifikoaren zatia egiteko kaudimen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Enpresa azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, HAZIrekiko erantzukizun osoa, agiriari zorrotz lotuta gauzatzeko, bai eta SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ere.

HAZIk kontratista nagusiak egindako azpikontratuen berri izateak ez du kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa aldatuko.

Azpikontratistei eta hornitzaileei egin beharreko ordainketak eta ordainketa horien egiaztapena SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

30. KONTRATU ESPEZIFIKOAK ALDATZEA

Kontratazio-organoak kontratu espezifikoak aldatu ahal izango ditu SPKLren 205. eta 222.1. artikuluetan aurreikusitako kasuetan. Nolanahi ere, esparru-akordioan oinarritutako kontratu espezifikoei ezingo zaie bertan ezarritakoaren funtsezko aldaketarik egin.

31. ERANTZUKIZUNA

Kontratu espezifiko bakoitzaren enpresa adjudikaziodunaren betebeharra izango da kontratua betearazteak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak ordaintzea.

Enpresa adjudikaziodunak emandako zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura izango du, baita kontratu espezifikoa betearaztean omisio, akats edo metodo desegokiengatik HAZI edo hirugarrenei eragindako ondorioena ere.

32. KONTRATU ESPEZIFIKOAK ETETEA

HAZIk kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLren 208.2. artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Ondorio horietarako, artikulu hori berariaz aplikatzekotzat ezartzen da.

33. KONTRATU ESPEZIFIKOAK AZKENTZEA

Kontratu espezifikoak azkendu egingo dira berori betetzeagatik nahiz ondoren arautzen denaren arabera horiek suntsiaraztea erabakitzeagatik.

Kontratua suntsiarazteko kausak lirateke, HAZIren borondatez:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabeziaren deklarazioa.

b) Enpresa kontratista epeetan berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Funtsezkoak diren gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua agiri honetan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratua betearaztean, enpresa kontratistak soldatak ez ordaintzea betearazpenean parte hartzen ari diren langileei nahiz langile horientzat aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, baita kontratua betearaztean ere.

g) Oro har, edozein kontratu-betebehar ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan jasotakoaren arabera.

h) Era berean, kontratua suntsiarazteko kausa izango dira SPKLren 313. artikuluaren 1. atalean ezarritakoak –ondorio hauetarako, hura berariaz aplikatzekoa deklaratzen da:

1. Prestazioa hasi baino lehen uko egitea edo erakunde kontratugileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik prestazioaren hasiera lau hilabetetik gora etetea, kontratua entregatzeko adierazi den datatik hasita.

2. Uko egitea prestazioa gauzatzen hasi ondoren edo kontratua etetea zortzi hilabetetik gorako epean, erakunde kontratugilearen erabakiz.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki suntsiaraziko da. Halakoetan, HAZIk hartu duen erabakiaren jakinarazpen fede-emailea egin behar dio kontratistari.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua bertan behera uztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua bertan behera benetan uztean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, HAZIk hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Suntsiarazpen kasu guztietan, benetan egin diren onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du enpresa kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik suntsiarazten bada, HAZIren alde sortuko da kontratu espezifikoaren prezioaren % 10aren baliokidea den zenbatekoa, metatze-izaerarekin, kasuan-kasuan dagozkion kalte-galeren ondoriozko edozein ordainez gain. Bi kopuruak kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, SPKLren 313. artikuluaren 3. atalean aplikatuko da berariaz, hau da:

a) Klausula honen h) letrako 1. atalean aurreikusitako ebazpenen kasuan, enpresa kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZik gabe) soilik jasotzeko eskubidea izango du.

b) Klausula honen h.2. atalean aurreikusitako suntsiarazpenen kasuan, enpresa kontratistak, kontzeptu guztiengatik, egin gabe utzi diren prestazioen adjudikazio-prezioaren % 6 (BEZik gabe) jasotzeko eskubidea izango du, mozkin industriala dela-eta.

Azkenik, kontratua suntsiarazi ahal izango da HAZI eta enpresa kontratista ados jarriz gero. Halakoetan, aldeen eskubideak haiek baliozkotasunez adostutakora egokituko dira.

34. KONTRATU ESPEZIFIKOEN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

Esparru-akordioaren arabera adjudikatzen diren kontratu espezifikoen prestaketari eta adjudikazioari dagokionez, administrazio-klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiri hau eta sinatzen den esparru-akordioa bera aplikatu ahalko zaizkie, eta, horietan aurreikusita ez dagoenaren kasuan, SPKLn horretarako ezarritako arauak ere aplikagarriak izango dira.

Eraginen eta azkentzearen arloan, administrazio-klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiri hau eta sinatzen den esparru-akordioa bera aplikatu ahalko zaizkie, eta, horietan aurreikusita ez dagoenaren kasuan, eskubide pribatuko arauak ere aplikagarriak izango dira. Nolanahi ere, esparru-akordioari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLren 319. artikuluan ezarritako arauak "eraginei eta azkentzeari" dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKL eta 1098/2001 Errege Dekretua (urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena) agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

Dena dela, oinarritutako kontratuak, datu pertsonalen babesari dagokionez, Espainiaren eta Europar Batasunaren araudiaren menpe egongo dira.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena izango da kontratuen prestakuntza, adjudikazio eta aldaketei buruzko auzigaiak ebazteko eskumena duena, aldaketa horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa urratzen badu, aldaketa hori adjudikazio berri baten bidez egin beharko litzakeela uste bada.

Hala badagokio, errekurtsoa jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren aurka, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoari jarraikiz, baita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoari ere.

Jurisdikzio zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratu espezifikoa azkentzeari dagokionez, klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak izan ezik.

I. ERANSKINA. ADIERAZPENEN NOTARIO-AKTAREN EREDUA, ENPRESA LIZITATZAILEAK ESKATZEN DEN KAUDIMENA DUELA ETA/EDO GUTXIENEKO BITARTEKOAK DITUELA EGIAZTATZEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN ETA/EDO BITARTEKOETAN OINARRITU NAHI BADU.

[…] jaunak/andreak (NAN zk.: […]), […] enpresaren (IFK: […]) legezko ordezkari gisa, adierazi du osorik ezagutzen dituela […] (enpresa lizitatzailearen izena) enpresa lizitatzaileak lehiatuko duen […] kontratatzeko lizitazioaren baldintzak, eta adjudikaziodun suertatuz gero, kontratua betearazteko behar diren baliabideak lizitatzaile horren esku jartzeko borondate ezeztaezina adierazten duela, Kode Zibileko 1257.2. artikuluan xedatutakoa espresuki onartuta. Hori ordeztu edo aldatzea […] erakundeak baimendu beharko du espresuki.

Idatzi hori, […]ren aurrean aurkeztuak, berekin ekarriko du konpromiso hori onartzea, baldin eta enpresa lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada.

Horretaz gain, adierazten du, eskaintza hau aurkeztu den egunean, ez dagoela Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuen eraginpean (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

[…](a)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

II. ERANSKINA ESPARRU-AKORDIOA SINATZEKO ESKAERAREN EREDUA

…….. jaunak/andreak, …….. helbidean bizi denak eta ……. NAN zk. duenak, beren izenean, edo ……..ren izenean (…….. helbidea eta …… zenbakiko NAN edo IFK du), jardute-gaitasun eta gaitasun juridiko osoarekin, honako hau

ADIERAZTEN DU:

I. Nekazaritza-sektoreko arloko pertsona ekintzaileentzako laguntza-zerbitzuetarako esparru-akordioa arautuko duen administrazio-klausulen eta baldintza teknikoen agiria ezagutzen duela.

II. Agiriaren eta lizitazioan parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazioaren edukia ezagutzen duela, eta espresuki osorik onartu eta betetzen duela, inolako salbuespenik gabe.

III. Nekazaritza-sektoreko arloko pertsona ekintzaileentzako laguntza-zerbitzuak emateko gai den edo diren enpresariekin esparru-erabakia egiteko prozedura irekian parte hartzea eskatzen duela.

IV. Esparru-erabakian parte hartzeko eskatu duenak/dutenek zerrendatutako lotean/loteetan parte hartu nahi duela/dutela (**adierazi gurutze batekin lotea/loteak*):

- **1. LOTEA:** Arabako nekazaritza-sektorearen esparruko ekintzaileei laguntza emateko zerbitzua.

- **2. LOTEA:** Bizkaiko nekazaritza-sektorearen esparruko ekintzaileei laguntza emateko zerbitzua.

- **3. LOTEA:** Gipuzkoako nekazaritza-sektorearen esparruko ekintzaileei laguntza emateko zerbitzua.

[…](a)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

……. jaunak/andreak, ……. helbidean bizi denak eta …… NAN zk. duenak, …….. telefono-zenbaki eta …… e-mailarekin, jardute-gaitasun eta gaitasun juridiko osoarekin, ……(r)en izenean (…….. helbidean bizi da eta …… IFK zk. du), nekazaritza-sektoreko arloko pertsona ekintzaileentzako laguntza-zerbitzuetarako esparru-akordioa arautuko duen administrazio-klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiriaren jakitun, honako hau

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA. - *(Eskatutako kaudimena egiaztatzeko beste erakundeenean oinarritu nahi bada gehitu):* Bere kaudimena egiaztatzeko, […](r)en kaudimen eta baliabideetan oinarritu nahi dela; esparru-akordioaren iraupen osoan zehar erakundeak haren eskura aipatutako kaudimen eta baliabideak jartzeko konpromisoa hartu du, eta egokia denean egiaztatuko du, administrazio-klausula partikularren eta baldintza teknikoen agirian ezarritako moduan.

Kontratuaren adjudikaziodun suertatzen bada, kontratua egitean kontratazioa arautzen duen administrazio-klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiriaren 10. klausulan eskatutako giza-baliabidea eta/edo baliabide materialak adjudikatzeko konpromisoa hartzen duela.

BIGARRENA. - *(Atzerriko enpresen kasuan gehitu).* Espainiako auzitegi eta epaitegien jurisdikzioaren mende gelditzen direla adieraziko dute, kontratuari lotuta zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, eta lizitatzaileari zegokiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten zaiola adieraziko dute, hala badagokio.

HIRUGARRENA. - Berariaz onartzen duela HAZI FUNDAZIOAk gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, adjudikazio- eta egikaritze-prozesutik eratorritako (adjudikazioduna suertatzen bada) datu guztiei, prozesua amaitu arte.

[…](a)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n
[Sinadura]

IV. ERANSKINA. FORMULAK ERABILITA EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA.

[…] jaunak/andreak (helbidea: […] eta NAN zk.: […]), bere izenean, edo […](r)en izenean eta haren ordezkari gisa (helbidea: […] eta NAN edo IFZ zk.: […]), gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du lizitazioa, […] prozedura […]aren bidez kontratatzeko, eta honen bidez,

ADIERAZTEN DU:

1. Konpromisoa hartzen du […] kontratua betearazteko honako baldintza hauen arabera:

a) Prezioa
   - Unitateko prezioa orduko: …… euro orduko (BEZa barne), honela xehatuta:

     - Prezioa (BEZik gabe): ……. euro orduko.

     - BEZa: ……. euro orduko.

b) Genero-berdintasunaren irizpidea: zerbitzuari atxikitutako taldearen gehiena emakumeek osatzen dute

2. Ezagutzen duela kontratua arautzen duen kontratuko dokumentazioa, eta berori osorik bere gain hartu eta ontzat hartzen du.

[…](a)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n

[Sinadura]

V. ERANSKINA. ZERBITZUEN DESKRIBAPEN, EZAUGARRI ETA BALDINTZAK

Eskatutako zerbitzuak emateko, erreferentzia gisa izango da indarrean dagoen Gaztenek programaren prozedura; bertan monitorizazio- eta biderapen-zerbitzua ematen duten pertsonen ardurak deskribatzen dira. Era berean, enpresa adjudikaziodunek zerbitzu hau kokatzen duen eta indarrean dagoen Gaztenek programaren koordinazio-zerbitzuak ezarritako jarraibideak eta metodologia errespetatuko dute, baita HAZIk ezarritako jarduera-protokoloak ere.

Oro har, honako hauetan oinarriko dira eskatutako zerbitzuak:

- Bere esku utzitako pertsona ekintzaileei negozio-eredua definitu eta ondoren Gaztenek prozeduran ezarritakoari jarraikiz ezartzeko beharrezkoak diren hausnarketa eta analisian laguntzea.
- Bere esku utzitako ekintzaileei garapenean lagunduko dioten informazioa eta jarraibideak helaraztea.
- Egokitu zaizkien ekintzaileen enpresa-planaren definizioaren jarraipena egitea, aintzat hartuz indarrean dagoen Gaztenek programaren prozeduran ezarritako enpresa-planaren eredua.
- HAZIk izendatutako pertsonarekin egindako lanen jarraipena eta deskargua egiteko bilerak egitea, Gaztenek prozeduran ezarritakoari jarraikiz.
- Pertsona ekintzaile bakoitzarekin egindako lanaren laburpena jasotzen duen azken dokumentua prestatzea.
- Indarrean dagoen Gaztenek programaren garapenean sartuta dauden beste eragileekin koordinatzea, ezarritako helburuak lortzeko.
- HAZIk indarrean dagoen Gaztenek programa eta kudeaketa-sistemak betetzeko eskatzen duen dokumentazio guztia betetzea.

Ondorengo eskemak indarrean dagoen Gaztenek programaren prozeduraren informazio zehatzagoa jasotzen du, enpresa adjudikaziodunek egin beharreko laguntza-zereginen deskribapenaz gain.

GAZTENEK PROZEDURAREN ESKEMA

Indarrean dagoen GAZTENEK prozeduraren eskema eta agiri honi lotutako laguntza-funtzioak egingo dituzten pertsonen zereginen deskribapen zehatza.

ORAIN INDARREAN DAGOEN GAZTENEK PROGRAMAREN PROZEDURAREN ESKEMA

AGIRI HONI LOTUTAKO LAGUNTZA-FUNTZIOAK EGINGO DITUZTEN PERTSONEN ZEREGINEN DESKRIBAPEN ZEHATZA.

MONITORIZAZIO-FASEA: ENPRESA-PLANA EGITEA

- Ekintzaileari enpresa-proiektuaren gaineko hausnarketa eta analisia egiten eta proiektua definitzen laguntzea.
- Proiektua nahi den tokian egin daitekeela egiaztatzea (lurraren erabileraren aldaketak, arau subsidiarioak, ura, ingurumena, osasuna, elektrizitatea), jarduera- eta obra-lizentziak eta pertsona ekintzailearen finantzaketaren aukera errealak, eskura dituen abalak barne.
- Enpresa-plana egitea, Gaztenek 2027 programaren prozedurak ezarritako gidoiari jarraikiz. Pertsona ekintzailearen eta monitorearen arteko elkarlana egingo da.
- Monitorizazio-prozesuan zehar landutako eta sortutako dokumentuak dagokion karpetan eta Gaztenek 2027 programaren kudeaketarako prestatutako aplikazioan erregistratuko dira.
- Laguntza-prozesuaren jarraipenak egiteko bilerak: Prozesuan zehar jarraipen-bilerak egingo dira, eta horietan, pertsona ekintzaile eta monitoreaz gain, dagokion GAZTENEK_2027 programaren koordinazioak parte hartu ahalko du.
- Monitorearen, OJA-OCAko teknikariaren eta Gaztenek 2027ko koordinazioaren arteko koordinazio-bilerak, proiektuak eta pertsona ekintzaileak laguntzen hautagai izateko beharrezko baldintzak bete ditzaten. (aldizkako bilera/elkarrizketak).
- Ekintzaileak eta monitoreak sinatutako enpresa-plana aurkeztea.
- Gaztenek 2027 programari lotutako BALORAZIO-BATZORDEETAN parte hartzea.

BIDERATZE-FASEA: ENPRESA-PLANA EZARTZEKO LAGUNTZA

- Pertsona ekintzaileari enpresa-plana ezarri eta betearazten laguntzea.
- Enpresa-plana Gaztenek 2027 programaren esparruan ezarritako epeetan ezarri dela egiaztatzea.
- Instalazio-epea amaitzean, proiektuak Gaztenek 2027 programaren esparruan ezarritako baldintza eta konpromisoak bete dituela egiaztatzen eta instalazioaren prozesuaren bilakaera jasotzen duen txostena bidaltzea.
- Laguntza eman zenetik bost urte igaro badira, eta onarpen-baldintzetan ezarritako gutxieneko parametroak betetzen ez badira, tutoreak txosten negatiboa bidaliko du.
- Bideratze-prozesuan zehar landutako eta sortutako dokumentuak dagokion karpetan eta Gaztenek 2027 programaren kudeaketarako prestatutako aplikazioan erregistratuko dira.
- Laguntza-prozesuaren jarraipena egiteko bilerak: prozesuan zehar jarraipen-bilerak egingo dira, eta horietan, pertsona ekintzaile eta tutoreaz gain, dagokion 2027 programaren koordinazioak parte hartu ahalko du.
- Gaztenek 2027 programari lotutako BALORAZIO-BATZORDEETAN parte hartzea.